

ALDUNDIA. Datorren urterako 4.356.115.220 euroko aurrekontu proiektua aurkeztuko deusie alderdiei

Bizkaiko Foru Aldundiak %38 jaitsi dau euskerearen sustapenerako gorde daben dirua, aurrekontu proiektuan

Aldundiak uste ebana baino gitxiago batu dau aurtan, eta Udalek 3.109 milioi pezeta itzuli beharko deusiez 2002ko ekitaldian

Iñigo Olabarri | BILBO

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun diputauak, Javier Urizarbarrenak, 2002ko Bizkaiko aurrekontuen proiektua aurkeztu eban atzo hedabideen aurrean. Proiektu hori Batzar Nagusieta-ko talde politikoei aurkeztuko jake astelehenean. Batzar Nagusiek 26tik 29ra ezbaidatuko ditue aurrekontuok eta urtarri-leko lehenengo hamabostaldirako onartuta egotea itxaroten dabe.

Javier Urizarbarrenak, Ogasun diputauak, aurrekontuen ezaugarri aitagarrienak zeintzuk diran azaldu ebanean «ekonomiaren geldotzeak eta bildutako dirutzeak baldintzatura» estu jokatu behar izan dabela esan eban. Kultura Sailaren barruan euskerearen sustapenerako gorde dan diruan nabarmen igarri da hori. Izan be, EAJ-EAk PSE-EEgaz berbatzen dabilen aurrekontu proiektuan gai horretarako 2.539.918 euro gorde ditue —422 milioi pezeta inguru—.

Igaz arlo bererako 685 milioi pezeta gorde zituen Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura sailak —262 milioi gehiago—. Hori dala eta, euskerearen sustapenerako Bizkaiko aurrekontuen proiektuan gorde dan dirua igaztik hona %38 jaitsi da.

Ekonomia sustatzeko inbertsino gehiago

Hain zuzen be, ekonomia hozteak ekarri dau Bizkaiko Foru Aldundiak aurrekontuetan iragarri dauen inbertsinoen gorakadea. Azkenengo aurrekontuak alderatu ezker, %48,2 igongo dira inbertsinoak. «Eragi horrek ekonomian eragin biderkatzailea eukiko dau», esan eban Urizarbarrenak eta «inbertsinookaz ekonomia barrero bide onera» ekarteko itxaropena agertu eban Ogasun diputauak.

Gizartekintza eta Herri lan eta Garraio arloak dira aurrekontuen proiektuan pisu handiena daukienak Urizarbarrenak aitatu eban lez. Gizartekintzak proiektu osoaren %27,5 hartuko leuke eta Herri lan eta Garraio arloak, barriz, %24,4.

Bizkaiko Foru Aldundiak ez dau batu itxaroten eban beste diru eta hori aurrekontuetan igarriko da. Dana dala, gehien igarriko dabenak Udalak izango dirala aitatu eban Aldundiko arduradunek. Udalek aurreko urtean 11.000 milioi pezeta jaso eban aurrekontuetatik. Aldundiak pentsetan ebana baino gehiago jaso ebalako izan zan hori. Aurtengo beherakadea dala eta 3.109 milioi pezeta itzuli beharko ditue Udalkutxara.

Javier Urizarbarrenak eta Aitor Esteban
LUIS TEJIDO / EFE



J. URIZARBARRENA
Ogasun diputaua

«Ekonomiaren geldotzeak eta batu dan dirutzeak eraginda, estu jokatu behar izan dogu aurrekontuak egiteko»

«Inbertsinoetan egin dogun gorakadeak eragin biderkatzailea eukitea eta ekonomia sustatzea itxaroten dogu»

ILDO NAGUSIAK

Aitatu dan moduan Gizartekintza eta Herri lan eta Garraio arloak dira aurrekontuan indar handiena daukienak. Bien artean aurrekontu osoen erdia baino gehiago jasoko dabe ia-ia %52. Aurrekontuen luzamenduagaz aurtan diputazinoko sailetan 686 milioi euro kudeatu behar izan ditue. Datorren urterako, oster, 806 milioi euro baino gehiago eukiko ditue. Igoera %17,5ekoa izango da.

GIZARTEKINTZA. Danetara, 189.007.335 euro kudeatuko dituala agertzen dabe proiektuan. Aurrekontuen zati handi bat hirugarren adinekoentzako laguntzek —25.196.109 euro— eta gizarte soldateak —46.878.944 euro— jango dituala aitortu eban Bizkaiko Foru Aldunditik.

HERRI LAN ETA GARRAIOA. Arlo horretan izten dau Bizkaiko Foru Aldundiak aurrekontuen zati handienetakoa. Aurreko urtekoak alderatuta %1tik gora igon da. Eraikin barrietarako gorde dabe zatirik handiena —58.676.822 euro—. TCSAk eta Metro Bilbaok, euren aldetik 39na milioi euro baino gehiago jasoko dabe.

ENPLEGUA ETA FORMAZINOA. Arlo guztien artean diru gitxiago jasoko dauen bakarra da. Urizarbarrenak, Ogasun diputauak, azaldutakoaren arabera, aurreko urteetan inbertsino berezi batzuk egin zirala eta aurtan dagoeneko amaituta dagoz. Hori izango litzateke orain diru gitxiago jasotaren arrazoia.

Sozialistakaz lortutako ituna EAJko Bizkaiko «jauntxo» lorpena dala dino Batasunak

Iñigo Bilbao

Bizkaiko jeltzaleek Diputazioaren aurrekontuen inguruan PSE-EE alderdiagaz berbatu gura daben akordikoak ez ditu ustekabeen atrapau Batasunako kideak. Horixe nabarmendu eban, atzo, Ibon Arbulu mahaikideak.

Batasunakoen ustez, itun horrek agerian itxi dau «EAJ-ren asmoa Espainiako indarrakaz itun barri bat lortzea dana, Estatutoaren garapenari bultzada emongo deusana». Ho-

rretarako, jeltzaleek Euskal Herriaren eraikuntza nazionala bazter baten itxi behar izan dabela salatu eban Arbuluk.

Operazino horren atzean, EAJko Bizkaiko hainbat «jauntxo» dagozala nabarmendu eban Batasunako buruak. Ez hori bakarrik, sozialistakaz ituna lortzea buruzagi horreen aspaldiko asmoa dala azpimarratu eban, eta hori frogatzeko, ETaren suetena bitartean Iñaki Azkunak eta Josu Bergarak egin zituen adierazpenak gogoratu zituan.

Udalbiltzari dirurik ez emoteko, sozialistek ipinitako aurrebaldintzea onartzeak argi izten dau Batasunarentzat zein dan jeltzaleek hartu daben norabide politikoa.

EAJ-EA eta PSE-EE batzarkideek ganerako taldeen zuzenketak ezagutu barik, guztiak atzera botateko hartu daben erabagia «harrigarria» dala esan eban, bestalde, Maitte Barreña batzarkideak. Jarrera horrek bere taldearen barruan «susmo txarrak» eragin dituela azpimarratu eban.



IÑIGO AZKUNA
Jeltzaleen jarrera gogor kritikau eban Batasunako kideek.